

2006KO EKAINAREN 29KO **OHIKO OSOKO BILKURA**

Lazkaoko Udaletxean, bi mila eta seiko ekainaren 29an, arratsaldeko zazpitan, Lazkaoko Udal Osoa biltzen da, aurrez honetarako deialdia egin delarik, Felix Urkola Iriarte Alkatearen lehendakaritzapean, ohiko batzarraldia egin asmoz.

Bertaratutako zinegotziak honako hauek dira: Xanet Barreras Jauregi, Arantxa Zumelaga Agirre, Inazio Barandiaran Aldasoro, Kepa Goenaga Alikostes, Xabier Arrasate Aierbe, Gorka Lamy Insausti.

Igor Sarriegi Zumarraga, Juan Manuel Serna Portugal eta Angel Olaso Villalba zinegotziak ez dira bertaratu. Azken honek bere ezin etorria adierazia zuen aurrez.

Aktan adieraziko da Amagoia Naldaiz Mingo eta Inazio Estensoro Eskisabel zinegotziak bertaratzen direneko uneak.

Idazkari lanetan Iñaki Eskisabel Zurututzak dihardu.

I.- AURREKO AKTA.-

Alkateak bilkurari hasera eman ondoren, bertaratutakoen onespenera aurkezten da 2006ko maiatzaren 8an egindako bilkurako akta, idatzita dagoen moduan onartzen delarik.

Une honetan Amagoia Naldaiz Mingo zinegotzia etorri da

II.- ALKATETZAREN EBAZPENEN BERRI EMATEA.-

Ondoren Alkateak azken Osoko Bilkuratik gaur arte emandako Alkatetzako Ebazpenen berri ematen du, ebazpen hauen zenbakizko laburpen baten bidez.

Osoko Bilkura jakinaren gainean gelditzen da.

Une honetan Inazio Estensoro Eskisabel zinegotzia etorri da.

III.- 10-12 HIRIGINTZ AREARI DAGOKION ARAU SUBSIDIARIOEN ALDAKETA PUNTUALAREN BEHIN-BEHINEKO ONARPENA.-

Lazkaoko Udalaren Osoko Bilkurak, 2006ko maiatzaren 8ko akordio bidez, Roberto Garcia Azpiri eta Ana Ezeiza Agirre arkitektoek eta Jon Orue-Etxeberria Iturri abogatuak idatzitako 10-12 Hirigintz Areari dagokion Lazkaoko Planeamenduko Arau Subsidiarioen aldaketa puntuala dokumentua hasierako izaeraz onartu zuen. Aldaketa honek honako helburuak ditu:

Trafikoko bidegurutzea ifarralderago eramatea, bidegurutze hau ari gareneko egoitza gunen berri honen erdialdetik ertz batera eramanez. Aldi berean honekin egoitza gunea eta aldamenean dagoen Ibabe industri poligonoa hobeto bereizita geratzeko lortuko da.

Dokumentua jendaurrean egon da hilabete bateko denboraldian, iragarkiak 2006ko maiatzaren 11 datako "Berria" eta maiatzaren 12ko "Noticias de Gipuzkoa" egunkarietan eta 2006ko maiatzaren 15 datako Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu zirelarik. Epe horretan 2 alegazio idatzi jaso dira.

Alegazio hauen aurrean aldaketa puntualaren erredaktatzaileek luzatutako txostenetan zera jasotzen da:

1 zbk.duna.- LAIDA AZKARGORTA RUIZ DE EGINO ETA LIERNI AZKARGORTA RUIZ DE EGINOK AURKEZTUTAKO ALEGAZIOA (Sarrera Erregistro zbkia. 2006/1989).

1.- ALEGAZIOAREN EDUKIA

Idatziak aipatzen du, dokumentuak ez dituela egin beharreko nahitaezko eta doha-ko zesioak zehazten. Konkretuki zera esaten da:

"Tramite honetan ez dira zehazten eragindako partzelen jabeek egin beharreko nahitaezko eta doako zesioak, eta beraz ez dago oinarririk zesio horiek aprobetxamenduekiko proportzionalak diren edo ez, eta kargen banaketa zuzena ote den zehazteko, edo eta alderantziz, konparaziozko bidegabekeri egoerak eman ote daitezkeen"

Aurrerago eranstean da:

"Dagozkion zesioen kalkulua Urbanizazio Proiektuan garatzeko geroratu bada, alde honek bere egunean egoki iruditutako alegazio edo erreklamazioak aurkezteko aukera gordetzen du."

Azkenik adierazten da:

*"Edozein kasutan, behean izenpetzen dutenek **alternatiboki**, Udalari nahitaez eta doan egin beharreko zesioen ordaineen hirigintza aprobetxamenduekin konpentsatzea onartuko lukete."*

2.- KONTSIDERAZIOAK

Zehazki ados ez dagoeneko puntuak jasotzen dituen alegazio bat baino, aurkeztutako idatzia azalpenezkoa da, eta etorkizunerako alegazioen "erreserba" posiblea.

Gaiaren sakonean sartuz adierazi behar da, urbanizazioak kontsolidatu gabeko hiritar lurzoruko jabeen betebeharrak, Lurzoruaren Erregimen eta Balorazioei buruzko apirilaren 13ko 6/1998 Legearen 14.2 artikuluan zehatz-mehatz ezarrita daudela, non nahitaezko eta doako zesioei dagozkienak aurkitzen diren. Beraz, izapidatzen ari den Arauen Aldaketak ezin du eta ez ditu aurreikuspen horiek gainditzen.

Eskubide eta betebeharren banaketa zuzenari dagokionean, lurzorua erregimen eta hiri antolaketari buruzko presazko neurriak ezartzen dituen Eusko Legebiltzarraren martxoaren 6ko 5/1998 Legeko 5. art.ak, kudeaketako guneak mugatzera behartzen du,

azalera osoaren zesio, berdinbanaketa eta urbanizazio betebeharrak batera betetzea posible egiteko. Zehaztapen hau aldaketa puntualak ere bete beharko du.

Azkenik, eta aipatzen den "irtenbide alternatiboari" dagokionean esan, alegatzaileek kudeaketa gunearen barnean jabetzak badituzte, ezbairik gabe, beraiek emandako eskubideei dagokien aprobetxamendua egokituko zaiela.

3.- ONDORIOA

Aurreko atalean azaldutakoarekin bat, eta "petitum"-ak zehazten ez direnez, aurkeztutako alegazioa ezestea proposatzen da.

Bestalde alegatzaileari jakinarazi behar zaio zesioan eman beharreko azalaren kopurua eta kokapena, guneko garapen planeamenduko dokumentuan isladatuta daudela, eta horiek zehaztea ez dagokiola Urbanizazio Proiektuari. Urbanizazio Proiektuaren helburua Hirigintz Planeamenduko Erregelamenduaren 67. artikuluan jasota dago, eta bere aurreikuspenen artean ez da zesioan eman beharreko azalera zenbatu eta zehaztea jasotzen.

Azkenik, alegatzaileei jakinarazi behar zaie, kudeaketa gunean barneratutako beren jabetzako azalerek, beraiek emandako eskubideen proportzionalak diren aprobetxamenduak sortuko dituztela.

2 zbk.duna.- CARMEN RUIZ DE EGUINO GARAYK AURKEZTUTAKO ALEGAZIOA (Sarrera Erregistro zbkia. 2006/1990).

1. ALEGAZIOAREN EDUKIA

Idatziak aipatzen du, dokumentuak ez dituela egin beharreko nahitaezko eta doha-ko zesioak zehazten. Konkretuki zera esaten da:

"Tramite honetan ez dira zehazten eragindako partzelen jabeek egin beharreko nahitaezko eta doako zesioak, eta beraz ez dago oinarririk zesio horiek aprobetxamenduekiko proportzionalak diren edo ez, eta kargen banaketa zuzena ote den zehazteko, edo eta alderantziz, konparaziozko bidegabekeri egoerak eman ote daitezkeen"

Aurrerago eranstean da :

"Dagozkion zesioen kalkulua Urbanizazio Proiektuan garatzeko geroratu bada, alde honek bere egunean egoki iruditutako alegazio edo erreklamazioak aurkezteko aukera gordetzen du."

2. KONTSIDERAZIOAK

Zehazki ados ez dagoeneko puntuak jasotzen dituen alegazio bat baino, aurkeztutako idatzia azalpenezkoa da, eta etorkizunerako alegazioen "erreserba" posiblea.

Gaiaren sakonean sartuz adierazi behar da, urbanizazioak kontsolidatu gabeko hiritar lurzoruko jabeen betebeharrak, Lurzoruaren Erregimen eta Balorazioei buruzko apirilaren 13ko 6/1998 Legearen 14.2 artikuluan zehatz-mehatz ezarrita daudela, non nahitaezko eta dohako zesioei dagozkienak aurkitzen diren. Ondorioz, izapidatzen ari den Arauen Aldaketak ezin ditu eta ez ditu aurreikuspen horiek gainditu behar.

Eskubide eta betebeharren banaketa zuzenari dagokionean, lurzorua erregimen eta hiri antolaketari buruzko presazko neurriak ezartzen dituen Eusko Legebiltzarraren martxoaren 6ko 5/1998 Legeko 5. art.ak, kudeaketako guneak mugatzera behartzen du, azalera osoaren zesio, berdinbanaketa eta urbanizazio betebeharrak batera betetzea posible egiteko. Zehaztapen hau aldaketa puntualak ere bete behar du.

3. ONDORIOA

Aurreko atalean azaldutakoarekin bat, eta “petitum”-ak konkretuki zehazten ez direnez, aurkeztutako alegazioa ezestea proposatzen da.

Bestalde alegatzaileari jakinarazi behar zaio zesioan eman beharreko azalaren kopurua eta kokapena, guneko garapen planeamenduko dokumentuan isladatuta daudela, eta horiek zehaztea ez dagokiola Urbanizazio Proiektuari. Urbanizazio Proiektuaren helburua Hirigintz Planeamenduko Erregelamenduaren 67. artikuluan jasota dago, eta bere aurreikuspenen artean ez da zesioan eman beharreko azalerak zenbatu eta zehaztea jasotzen.

Guzti horren aurrean, Udal Osoko Bilkurak, bertaratutako 9 partaideen aldeko bo-tuarekin, eta beraz, Udalaren legezko gehiengo osoaren aldeko botuz, honako akordioak hartzen ditu:

- 1.- 10-12 Hirigintz Area guneari dagokion Arau Subsidiarioen Aldaketa Puntual honen hasierako onarpenaren aurrean egon diren alegazioak ezeztzea.
- 2.- Arau Subsidiarioen aldaketa puntualaren dokumentu hau behin behingoz onartzea.
- 3.- Espedientea Gipuzkoako Foru Aldundira bidaltzea, honek behin betiko onarpenari bu-ruz ebatzi dezan.

IV.- 10-12 HIRIGINTZ AREARI DAGOKION BARNE ERALDAKUNTZAKO BERARIAZKO EGI-TASMOAREN BEHIN-BEHINEKO ONARPENA.-

Lazkaoko Udalaren Osoko Bilkurak, 2006ko maiatzaren 8ko akordio bidez, Roberto Garcia Azpiri eta Ana Ezeiza Agirre arkitektuek eta Jon Orue-Etxeberria Iturri abogatuak idatzitako 10-12 Hirigintz Areari dagokion Barne Eraldakuntzako Berariazko Egitasmoa do-kumentua hasierako izaeraz onartu zuen.

Dokumentua jendaurrean egon da hamabost lanegunetako denboraldian, iragarki-ak 2006ko maiatzaren 11 datako “Berria” eta maiatzaren 12ko “Noticias de Gipuzkoa” egunkarietan eta 2006ko maiatzaren 15 datako Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu zirelarik. Epe horretan 2 alegazio idatzi jaso dira.

Alegazio hauen aurrean Barne Eraldakuntzako Berariazko Egitasmoaren erredaktatzaileek egindako txostenetan honako hau jasotzen da:

1 zbk.duna.- LAIDA AZKARGORTA RUIZ DE EGINO ETA LIRENI AZKARGORTA RUIZ DE EGINOK AURKEZTUTAKO ALEGAZIOA (Sarrera Erregistro zbkia. 2006/1988).

1.- ALEGAZIOAREN EDUKIA

Lehenik esan behar da alegazio hau, aurretik Arau Subsidiarioen Aldaketa Puntualari egindakoaren kopia dela, eta beraz, orain egiten den azterketak eta ateratako ondorioek, besteari erantzuteko egindako txostenarekin antzekotasuna dutela.

Idatziak aipatzen du, dokumentuak ez dituela egin beharreko nahitaezko eta dohako zesioak zehazten. Konkretuki zera esaten da:

“Tramite honetan ez dira zehazten eragindako partzelen jabeek egin beharreko nahitaezko eta doako zesioak, eta beraz ez dago oinarririk zesio horiek aprobe-txamenduekiko proportzionalak diren edo ez, eta kargen banaketa zuzena ote den zehazteko, edo eta alderantziz, konparaziozko bidegabekeri egoerak eman ote daitezkeen”

Aurrerago eranstean da:

“Dagozkion zesioen kalkulua Urbanizazio Proiektuan garatzeko geroratu bada, alde honek bere egunean egoki iruditutako alegazio edo erreklamazioak aurkezteko aukera gordetzen du.”

Azkenik adierazten da:

*“Edozein kasutan, behean izenpetzen dutenek **alternatiboki**, Udalari nahitaez eta doan egin beharreko zesioen ordaineen hirigintz aprobe-txamenduekin konpentsatzea onartuko lukete.”*

2.- KONTSIDERAZIOAK

Zehazki ados ez dagoeneko puntuak jasotzen dituen alegazio bat baino, aurkeztutako idatzia azalpenezkoa da, eta etorkizunerako alegazioen “erreserba” posiblea.

Gaiaren sakonean sartuz adierazi behar da, urbanizazioak kontsolidatu gabeko hiritar lurzoruko jabeen betebeharrak, Lurzoruaren Erregimen eta Balorazioei buruzko apirilaren 13ko 6/1998 Legearen 14.2 artikuluan zehatz-mehatz ezarrita daudela, non nahitaezko eta dohako zesioei dagozkienak aurkitzen diren. Haserakoz onartutako eta jendaurrean erakutsitako planeamendu xehakatuaren dokumentuak, zesioko azalerak zein diren izendatzen ditu, eta ondorioz, azalera horiek ez direla zehazten esanez alegazioan egiten den aipamena ez da zuzena.

Eskubide eta betebeharren banaketa zuzenari dagokionean, lurzorua erregimen eta hiri antolaketari buruzko presazko neurriak ezartzen dituen Eusko Legebiltzarraren martxoaren 6ko 5/1998 Legeko 5. art.ak, kudeaketako guneak mugatzera behartzen du,

azalera osoaren zesio, berdinbanaketa eta urbanizazio betebeharrak batera betetzea posible egiteko. Zehaztapen hau a priori B.E.B.E.ak betetzen du.

Azkenik, eta aipatzen den "irtenbide alternatiboari" dagokionean esan, alegatzaileek kudeaketa gunearen barnean jabetzak badituzte, ezbairik gabe, beraiek emandako eskubideei dagokien aprobetxamendua egokituko zaiela.

3.- ONDORIOA

Azaldutakoarekin bat aurkeztutako alegazioa ezestea proposatzen da.

Bestalde alegatzaileari jakinarazi behar zaio zesioan eman beharreko azalaren kopurua eta kokapena, guneko garapen planeamenduko dokumentuan isladatuta daudela, eta horiek zehaztea ez dagokiola Urbanizazio Proiektuari. Urbanizazio Proiektuaren helburua Hirigintz Planeamenduko Erregelamenduaren 67. artikuluan jasota dago, eta bere aurreikuspenen artean ez da zesioan eman beharreko azalerak zenbatu eta zehaztea jasotzen.

Azkenik, alegatzaileei jakinarazi behar zaie, kudeaketa gunean barneratutako beren jabetzako azalerek, beraiek emandako eskubideen proportzionalak diren aprobetxamenduak sortuko dituztela.

2 zbk.duna.- CARMEN RUIZ DE EGUINO GARAYk AURKEZTUTAKO ALEGAZIOA (Sarrera Erregistro zbkia. 2006/1991).

1.- ALEGAZIOAREN EDUKIA

Lehenik esan behar da alegazio hau, aurretik Arau Subsidiarioen Aldaketa Puntualari egindakoaren kopia dela, eta beraz, orain egiten den azterketak eta ateratako ondorioek, besteari erantzuteko egindako txostenarekin antzekotasuna dutela.

Idatziak aipatzen du, dokumentuak ez dituela egin beharreko nahitaezko eta doako zesioak zehazten. Konkretuki zera esaten da:

"Tramite honetan ez dira zehazten eragindako partzelen jabeek egin beharreko nahitaezko eta doako zesioak, eta beraz ez dago oinarririk zesio horiek aprobetxamenduekiko proportzionalak diren edo ez, eta kargen banaketa zuzena ote den zehazteko, edo eta alderantziz, konparaziozko bidegabekeri egoerak eman ote daitezkeen"

Aurrerago eranstean da :

"Dagozkion zesioen kalkulua Urbanizazio Proiektuan garatzeko geroratu bada, alde honek bere egunean egoki iruditutako alegazio edo erreklamazioak aurkezteko aukera gordetzen du."

2.- KONTSIDERAZIOAK

Zehazki ados ez dagoeneko puntuak jasotzen dituen alegazio bat baino, aurkeztutako idatzia azalpenezkoa da, eta etorkizunerako alegazioen "erreserba" posiblea.

Gaiaren sakonean sartuz adierazi behar da, urbanizazioak kontsolidatu gabeko hiritar lurzoruko jabeen betebeharrak, Lurzuaren Erregimen eta Balorazioei buruzko apirilaren 13ko 6/1998 Legearen 14.2 artikuluan zehatz-mehatz ezarrita daudela, non nahitaezko eta dohako zesioei dagozkienak aurkitzen diren. Haserakoz onartutako eta jendaurrean erakutsitako planeamendu xehakatuaren dokumentuak, zesioko azalerak zein diren izendatzen ditu, eta ondorioz, azalera horiek ez direla zehazten esanez alegazioan egiten den aipamena ez da zuzena.

Eskubide eta betebeharren banaketa zuzenari dagokionean, lurzuaren erregimen eta hiri antolaketari buruzko presazko neurriak ezartzen dituen Eusko Legebiltzarraren martxoaren 6ko 5/1998 Legeko 5. art.ak, kudeaketako guneak mugatzera behartzen du, azalera osoaren zesio, berdinbanaketa eta urbanizazio betebeharrak batera betetzea posible egiteko. Zehaztapen hau a priori B.E.B.E.ak betetzen du.

3.- ONDORIOA

Azaldutakoarekin bat aurkeztutako alegazioa ezestea proposatzen da.

Bestalde alegatzaileari jakinarazi behar zaio zesioan eman beharreko azalaren kopurua eta kokapena, guneko garapen planeamenduko dokumentuan isladatuta daudela, eta horiek zehaztea ez dagokiola Urbanizazio Proiektuari. Urbanizazio Proiektuaren helburua Hirigintz Planeamenduko Erregelamenduaren 67. artikuluan jasota dago, eta bere aurreikuspenen artean ez da zesioan eman beharreko azalerak zenbatu eta zehaztea jasotzen.

Bestalde eta Hirigintza Batzordean izandako bileretan hitzegindakoaren arabera dokumentuari honako aldaketak egitea proposatzen da:

- PR18 lursail berriak Elosgi Kalera daukan lerrokadura dokumentuaren ordenamenduko planoetan azaltzen dena izan beharrean, bere ondoko PRC1 lursailak daukana izatea.
- Ordenantzen 10. artikuluari honako hau gehitzea: mugatutako burutze unitatea Hirigintzako Kudeaketa Arautegiaren 38. artikulua ezarritako prozedura jarraituz aldatu ahal izango da.
- Ordenantzen 14. artikulua aldatzea honako hau esanez: birpartzelazio proiektuak azpilursailak formulatu ahal izango ditu Barne Eraldakuntzan definitutako lursailetan.

Guzti horren aurrean, Udal Osoko Bilkurak, bertaratutako partaide guztien aldeko botuekin, honako akordioak hartzen ditu:

1.- 10-12 Hirigintz Area guneari dagokion Barne Eraldakuntzako Berariazko Egitasmo honen hasierako onarpenaren aurrean egon diren alegazioak ezeztzea.

2.- Barne Eraldakuntzako Berariazko Egitasmo dokumentu hau behin behingoz onartzea, akordio honen azalpen zatian agertzen diren eta dokumentua aldatzen duten proposamenak barne hartuz.

3.- Espedientea Gipuzkoako Foru Aldundira bidaltzea, honek behin betiko onarpenari buruz ebatzi dezan.

V.- BILERAREN AMAIERA.-

Eta eztabaidatzeko beste gairik ez dagoenez, Alkateak bilera amaitutzat jotzen du, iluntzeko zazpi terdiak direnean nik, Idazkariak, guztiaren akta jaso eta ziurtatzen dudalarik.